

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2015eko 3. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

2015eko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomia %3,0 hazi zen urte arteko tasan, aurreko epealdian baino hiru hamarren gehiago, eta dagoeneko zazpi hiruhileko kateatu ditu hazkunde etengabe eta gero eta biziagoa lortuz. Eraitza hori are deigarriagoa da inguruneko ekonomiek jasotako datuekin alderatzen bada. Izan ere, EAEko jarduerak ia bikoiztu zuen Euroguneko batez besteko erritmoa (%1,6) eta puntu batetik gorakoa da Europar Batasunari (%1,9) atera dion distantzia. Halaber, bi kasu horietan bigarren hiruhilekoko eraitza berdindu zen, EAEn gehikuntza tasa handitu zen bitartean. Hiruhileko arteko tasan, EAEko ekonomia %0,8 hazi zen.

Aurreko dokumentuetan adierazi zenez, EAEko ekonomiaren bultzada osoa barne eskariaren eskutik iritsi zen, BPGaren gehikuntzari 3,2 puntu ekarri zizkiolako. Aitzitik, kanpo saldoak bi hamarren kendu zizkion hazkundeari. Hala esportazioek nola inportazioek urte arteko aldakuntza apalak eskuratu zituzten, nahiz eta epealdi horretan jasotako zenbatekoak, bereziki esportazioen kasuan, serie historiko osoan aurkitu daitezkeen gorenetaoak diren. Hala eta guztiz ere, barne eskariaren bultzadak inportazioak areagotu zituen, kanpoan saldatuakoen bultzada konpentsatuz.

Barne eskariaren bi osagaiek lau hamarrenetan biziagotu zuten beren tasa aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina oraindik askoz ere handiagoa da azken kontsumoak erakusten duen bizitasuna. Hain zuzen ere, agregatu makroekonomiko hori %3,3 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, bere bi ataletan oinarrituta, urte arteko aldakuntza tasa berdintsuak eskuratu zituztelako. Alde batetik, familien kontsumoa %3,3 handitu zen, aurreko eraitza berdinduz. Bultzada horren oinarrian, enpleguaren etengabeko sorrera, soldaten hazkunde txikia, prezioen jaitziera, konfiantzaren susperraldia eta kreditua lortzeko erraztasun handiagoa daude, beste arrazoi batzuen artean. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoa %3,2 areagotu zen, aurreko balioen oso gainetik dagoelarik, baina ez da aurrekusten tasa altu hori datozen hiruhilekoetan ere eskuratuko denik.

Orobat, kapital eraketa gordinak ere lau hamarrenetan hobetu zuen bigarren hiruhilekoan lortutako eraitza eta %2,2 hazi zen. Tasa hori esanguratsua da kontuan hartzen bada azken sei urteetan inbertsioak etengabeko narriadura pairatu duela. Inbertsioaren dinamismo guztia ekipamendurako ondasunetan metatu da, %7,4ko gehikuntza bat lortuta, aurreko datua baino puntu bat eta erdi gehiago baita. Bankuetan finantzazioa lortzeko erraztasunak, barne eta kanpo eskarien susperraldiak, eta ekonomiari buruzko iritziak hobera egin izanak bilakaera on hori justifikatzen dute. Aitzitik, gainontzeko inbertsioak, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, ez du bat egin suspertzeko joera horrekin eta irudi laua eskaini zuen berriro, baita zertxobait beheranzkoa ere (%-0,1).

Eskaintzaren ikuspegitik, nabarmendu behar da EAEko ekoizpenaren bi zutabe nagusien arteko oreka berreskuratu dela. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoz jarraian, industriaren eta zerbitzuen balio erantsiaren gorakada oso antzekoa izan zen, bi kasuetan %3,0aren zertxobait gainerik kokatu zelako. Industriaren urte arteko aldakuntza tasa %3,2ra iritsi zen, aurreko emaitza hamarren batean gaindituz. Zerbitzuen hazkundea, berriz, %3,3 izan zen. Zerbitzuen artean, arlo pribatuari lotuago dauden jarduerak gehiago hazi zirela hauteman da. Arlo publikoaren jarduerak, ordea, gehikuntza tasa nabarmena eskuratu zuten. Zehazkiago, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldea %2,2 hazi zen. Halaber, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barnean hartzen dituenak %3,5 handitu zuen balio erantsia, gainontzeko zerbitzuek jaso zuten emaitzatik (%3,7) hurbil. Azkenik, eraikuntzak ezin izan ziren tasa positiboari eutsi eta bi hamarrenetan gutxitu zuen balio erantsia.

Ekonomia jardueraren portaera onak bere isla izan zuen lan merkatuan, enplegua %1,8 hazi baitzen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Ehuneko horrek adierazten du lanaldi osoko 15.600 lanpostu baliokide baino zertxobait gehiago sortu direla azken urtebetean. Ia lanpostu guztiak zerbitzuetan sortu ziren, bertako lanpostuak %2,5 areagotu zirelako. Lehen arloak ere ekarpen positiboa (%3,4) egin zuen enpleguan.

Jardueraren eta enpleguaren bultzada sendoa prezioen beheranzko testuinguru batean gauzatu zen, BPGaren deflatorearen bilakaerak (%-0,1) erakusten duenez. Beheranzko joera hori are nabarmenagoa da kontsumoko salneurrietan, urrian %-0,4ko eta azaroan %-0,1eko aldakuntza tasak jaso baitzituen. Hala ere, aldakuntza negatibo horiek gero eta mugatuago daude petrolioarekin zerikusia duten produktuetera, azpiko inflazioak %2,0ko helburura hurbiltzen jarraitzen duen bitartean.


Datozen hiruhilekoei begira, Ogasun eta Finantza Sailaren aurreikuspenak aurreko hiruhilekoko datuei eusten dio, eta sinalatzen du laugarren hiruhilekoa hirugarrenaren oso antzekoa izango dela, eta 2015eko batez besteko hazkundea urrian aurreikusi zen %2,7tik oso hurbil egongo dela. Datorren urterako aurreikuspenak (urrian aurkeztu zen bezala) zertxobait leuntzen du emaitza, %2,5era arte. Aurreikusten denez, petrolioaren salneurria datorren urtean ez dela horrenbeste jaitsiko eta, agian, zerbait garestituko da; euroak ez du baliorik galduko dolarraren aldean; eta Europako Banku Zentralaren moneta politika oraingoaren antzekoa izango da, neurri pizgarri gehiago hartu gabe. Orobat, Espainiak 2016an indarra galduko du eta horrek hazkunde motelagoa eragingo du EAEn. Alde positiboan, ingurunerako aurreikuspenek pentsarazten dute EAEko produktuen beste merkatuak, bereziki Europakoak, gehiago haziko direla 2016an aurten baino, esportazioak areagotuz.

EKONOMIAREN INGURUNEA


Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak arin leundu zuen hazkunde erritmoa eta, lehen zenbatespenen arabera, %3,1eko urte arteko tasa eskuratu zuen, aurtengo lehen sei hilekoetakoa baino hamarren bat gutxiago. Bai herrialde garatuek bai azaleratzen ari direnek bat egin zuten moteltze txiki horrekin, nazioarteko merkataritzak geldotasun handia erakusten duen eta inflazioak oso maila apalean jarraitzen duen testuinguru batean.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Herrialde garatuetan, ekonomiaren hazkundeak indartsu jarraitu zuen, nahiz eta aurreko emaitza baino zertxobait beherago. Izan ere, ELGEko herrialdeak, batez beste, %2,0 hazi ziren aurtengo hirugarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago, baina oraindik azken bost urteko batez bestekoa (%1,6) baino gehiago. Garapen bidean dauden ekonomien jarduera berriro ahuldu zen hirugarren hiruhilekoan. Salbuespena Eurogunekoak ez diren baina Europar Batasunean parte hartzen duten herrialdeak dira, aurreko hiruhilekoetako bizitasunari eutsi ziotelako (Polonia %3,7 hazi zen, Errumania %3,6 eta Bulgaria %2,9). Garatzen ari diren gainontzeko herrialdeen artean, oso bestelakoa izan zen lehengaien esportatzaileen eta inportatzaileen arteko egoera. Izan ere, Indian hazkundeak bi hamarrenetan moteldu zen, %7,1 arte, baina Brasilen jarduerak %-4,4ko beherakada pairatu zuen.

Txinari dagokionez, bertako moteltzea gertatu zen bitartean, ekonomia jarduera zerbitzuetara lerratu zen eta gastua kontsumo pribatura mugitu zen, oreka berri baterako urratsak emanez. Zehazkiago adierazita, zerbitzuak %8,4 hazi ziren eta ekonomia jardueraren bultzagile nagusia izan ziren, gainontzeko sektoreek, baita eraikuntzak ere, erritmoa galdu zutelako hiruhilekoan zehar eta BPGari egiten dioten ekarpena murriztu zuten. Kanpo arloak Asiako erraldoiaren ibilbidea galgatu zuen, hala esportazioak nola inportazioak oso nabarmen murriztu zirelako. Aurreko guztiaren ondorioz, Txinako BPGa %6,9 hazi zen, aurreko sei hilekoetan baino hamarren bat gutxiago.

Japoniako ekonomia %1,7 areagotu zen, agregatu nagusi guztien hazkunde orekatu eta positiboari esker. Tasa hori aurreko hiruhilekokoa baino puntu bat altuagoa da eta orduan hasi zen susperraldia finkatzeko balio du. Inbertsioaren sendotasuna, bereziki egoitzetan ez den inbertsioa, eta esportazioen bultzada, yenaren balio galerak lagunduta, izan ziren ekonomia jardueraren bultzagile behinenak. Oraindik hazkunde tasa apala (%0,5) duen arren, aipamen berezia merezi du kontsumo pribatuaren bilakaera, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gehiago hazi zelako eta urtebete oso bat tasa negatibotan murgilduta eman ondoren bigarren gehikuntza tasa positiboa kateatu zuelako. Bilakaera horrekin bat eginez, langabezia tasa %3,1 izan zen urrian, aurreko hilekokoa baino hiru hamarren txikiagoa eta 1995etik inoiz jaso den tasarik txikiena. Prezioek ere bat egin zuten joera on horrekin eta urrian %0,3 hazi ziren, urte hasieratik bizi zen beheranzko norabidea galgatzuz.

AEBetan, lan merkatuaren egoera osasuntsuak –langabezia tasa urrian %5,0ra jaitsi zen, 2008ko apiriletik inoiz jaso duen txikiena baita- eta inflazio apalak (%0,2 urrian) kontsumo pribatua lagundu zuten, %3,2 hazi baitzen eta ekonomia jarduerari puntu bat eta erdi ekarri zion. Halaber, inbertsio pribatua, bereziki egoitzetan eginikoa, are gehiago eta sendo hazi zen, baina ez zen nahiko izan egituretan eginiko inbertsioaren beste narriadura bat eta kontsumo publikoaren geldotasuna konpentsatzeko, azken hori oraindik galga bat da ekonomiaren garapenerako, aurrekontuen murrizketengatik. Beste aldetik, kanpo arloak hamarren bat kendu

zior BPGari. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia estatubatuarra %2,2 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi bat gutxiago.

Azaleratzen ari diren ekonomiek erritmoa moteldu zuten arren, Europako Banku Zentralaren (EBZ) moneta politika egokitzailak, petrolioaren salneurri merkeak eta euroaren balio galerak aukera eman zioten Europar Batasunari hazkunde erritmoa finkatzeko eta %1,9 hazteko. Kontinente zaharra tasa egonkorrean hazi zen eta barne eskariaren agregatu guztiek lagundu zuten BPGaren hazkunderan. Kanpo arloak bakarrik kendu zion hamarren bat ekonomiaren jarduerari. Zehatz-mehatz, bai Alemanian bai Frantzia kontsumoaren sendotasunak, hala publikoa nola pribatua, eta inbertsio suspertuaren bultzadak (bi kasuetan urtebetea zeraman tasa negatibotan) bide eman zieten bi ekonomia horiei gehiago hazteko, hurrenez hurren, %1,7 eta %1,2. Erresuma Batuak, berriz, zertxobait moteldu zuen erritmoa, inportazioen sendotasunak kaltetuta. Hala eta guztiz ere, herrialde hartako BPGa %2,3 handitu zen eta bere papera garrantzitsua da oraindik eremuaren susperraldian.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa %9,3an kokatu zen urrian, 2009ko irailetik jaso duen mailarik txikiena baita. Datu horien arabera, 22,5 milioi lagun inguru daude lanik gabe kontinente zaharrea, haietatik 17,2 milioi pertsona Euroguneko herrialdeetan. Eremua osatzen duten herrialdeen arteko aldeak oso nabarmenak dira lan merkatuaren alorrean. Izan ere, urrian langabezia tasa Alemanian (%4,5), Txekiar Errepublikan (%4,7), Maltan (%5,1), Erresuma Batuan (%5,2 abuztuan) eta Austrian (%5,6) kontrolpean eta krisiaren aurreko mailaren azpian zeuden bitartean, Greziak (%24,6 irailean) eta Espainiak (%21,6) bide luzea daukate aurretik 2007ko amaieran zeukaten langabezia tasa berreskuratu arte (%8,1 Grezian eta %8,8 Espainian). Azkenik, Eurogunean kontsumoko prezioak %0,2an kokatu ziren azaroan.

Espainian, ekonomiaren hazkundeak sendoa izaten jarraitu zuen. Enpleguaren bilakaera onak, aurtengo hirugarren hiruhilekoan indartsu hazi baitzen, eta erregaien salneurri apalek -KPIa azaroan %-0,3an kokatu zen- kontsumo pribatuaren bizitasuna areagotu zuten, %3,5 haziz. Orobat, inbertsioak, bereziki ekipamendurako ondasunetan eta ereindako aktiboetan eginikoak, indartsu bizkortu zen, eta kanpo eskariak hamarren batera mugatu zuen hazkunderari egiten zion ekarpen negatiboa. Aurreko guztiaren ondorioz, espainiar ekonomia %3,4 handitu zen hirugarren hiruhilekoan. Urte arteko hazkunde tasa hori aurreko hiruhilekoko baino bi hamarren handiagoa izan zen eta, aldi berean, 2007ko laugarren hiruhilekotik, hau da krisia hasi aurretik, inoiz eskuratu den altuena.

Eskaintzaren ikuspegitik, lehen arloaren susperraldia finkatu zen eta, eraikuntzak izan ezik, sektore guztiek bigarren hiruhilekoko baino hazkunde tasa handiagoak lortu zituzten.

Zerbitzuen arloa ere aurrekoan baino gehiago hazi zen, finantza jarduerak eta aseguruak biltzen dituen adarrak behera egin zuen arren. Dena dela, eraikuntzaren gorakada %5,5era iritsi zen, sektore nagusien artean dinamikoena izan zela agerian utziz.

Analisia lan merkatuan fokatuz, hiruhilekoko kontabilitatearen datuen arabera, enplegua %3,1 hazi zen urte arteko tasan 2015eko hirugarren hiruhilekoan. Datu horrek esan nahi du lanaldi osoko 512.000 lanpostu baliokide sortu direla azken hamabi hilekoetan. Sektoreka, lehen arloak eskuratu zuen gehikuntza tasarik altuena (%3,9), aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino 3,6 puntu gehiago. Orobat, zerbitzuek ere aurreko hiruhilekoko baino hazkunde handiagoa lortu zuten. Aitzitik, industriak eta eraikuntzak erritmoa zertxobait apaldu zuten. Hala eta guztiz ere, sektore guztiek hazkunde tasa garrantzitsuak izan zituzten, ekonomiaren egoera ona dela agerian utziz.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2013	2014	2014			2015		
			II	III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	-3,0	0,9	0,9	1,1	1,2	2,1	2,7	3,3
- Familien gastua	-3,1	1,2	1,1	1,5	1,8	2,5	2,9	3,5
- Administrazioaren gastua	-2,8	0,0	0,2	0,2	-0,5	1,3	2,1	3,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	-2,5	3,5	4,3	3,4	4,9	6,0	6,3	6,5
- Aktibo finko materialak	-3,4	3,7	4,7	3,6	5,6	7,0	7,2	7,5
- Eraikuntzan	-7,1	-0,2	0,8	1,3	4,1	6,2	5,5	5,5
- Ekipamendurako ondasunetan	3,9	10,5	11,6	7,4	8,1	8,2	9,9	10,6
- Jabetza intelektualeko produk.	2,9	2,1	1,8	2,2	0,7	0,8	1,0	0,8
Nazio eskaria (*)	-3,1	1,6	1,8	1,8	2,0	2,9	3,3	3,9
Esportazioak	4,3	5,1	2,8	6,4	6,5	5,9	6,2	5,6
Inportazioak	-0,3	6,4	5,2	7,3	6,8	7,2	7,0	7,7
BPG (m.p.)	-1,7	1,4	1,2	1,7	2,1	2,7	3,2	3,4
Nekazaritza eta arrantza	16,5	-3,7	-6,0	-2,9	-8,7	-4,2	2,1	3,6
Industria	-5,2	1,2	1,5	1,5	2,5	3,0	3,7	4,0
Eraikuntza	-9,8	-2,1	-3,9	0,2	3,1	5,9	5,9	5,5
Zerbitzuak	-0,6	1,9	1,8	2,1	2,5	2,6	3,0	3,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	-2,9	0,8	0,8	1,3	1,7	2,6	2,6	2,6
GOGORATZEKOAK								
- Kontsumoko prezioen indizea	1,4	-0,2	0,2	-0,3	-0,5	-1,0	-0,3	-0,4
- Enplegua (**)	-3,5	1,1	1,0	1,7	2,4	2,9	3,0	3,1

Oinarri urtea: 2010. (*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2015eko hirugarren hiruhilekoan, EAEko ekonomiak %3,0 handitu zuen BPGa urte arteko tasan, aurreko emaitza hiru hamarrenetan hobetuz. 2007. urtera itzuli behar da horrelako jarduera tasa dinamiko bat aurkitzeko. Dagoeneko zazpi hiruhilekoz jarraian eskuratu ditu EAEko BPGak gero eta gehikuntza tasa handiagoak. Ingurunekeo ekonomiekin alderatuta, azpimarratu behar da EAEk ia bikoiztu zuela Eurogunearen hazkunde erritmoa (%1,6) eta puntu batean baino gehiagoan gaudituz zuela Europar Batasunarena (%1,9). Beste aldetik, espainiar ekonomiaren erritmoa (%3,4) oraindik berdindu ez duen arren, herrialde horrekiko diferentziala hamarren batean murriztu zuen. Hiruhileko arteko tasetan, EAEko ekonomiaren gehikuntza esanguratsua izan zen berriro (%0,8), baina bigarren hiruhilekoko (%1,0) baino zertxobait txikiagoa. Edozein modutan, bi zenbaki horiek espainiar ekonomiak lortutako berak dira eta datozen epealdietako bizitasuna bermatzen dute.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014		2015		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	-1,8	1,4	1,7	2,0	2,2	2,7	3,0
Nekazaritza eta arrantza	-3,5	-10,0	-3,6	-17,1	-9,9	-20,1	-9,9
Industria eta energia	-2,7	1,5	2,0	1,3	0,4	3,1	3,2
- Manufakturen industria	-2,5	2,3	2,8	2,1	0,4	3,2	3,3
Eraikuntza	-4,6	-3,2	-2,7	-2,1	0,6	0,2	-0,2
Zerbitzuak	-1,1	1,5	1,9	2,8	3,0	3,1	3,3
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,4	2,0	2,3	3,4	3,2	3,3	3,5
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,6	2,1	2,1	2,5	2,6	2,3	2,2
- Gainontzeko zerbitzuak	-1,9	0,9	1,5	2,6	3,0	3,3	3,7
Balio erantsi gordina	-1,8	1,1	1,6	2,0	2,1	2,7	2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-1,6	3,8	2,8	2,9	2,7	2,9	3,3

Iturria: Eustat.

Aurreko txostenean dagoeneko adierazi zenez, EAEko ekonomiaren bi sektore nagusien arteko oreka berreskuratu da, industria eta zerbitzuak antzeko erritmoan garatu direlako. Bi sektore horiek %3,0 baino gehiago hazi ziren eta aurreko hiruhilekoko emaitza hobetu zuten.

Zehazkiago adierazita, industriak %3,2 handitu zuen bere balio erantsia, aurreko hiruhilekoa baino hamarren bat gehiago, eta zerbitzuek %3,3ko urte arteko tasa eskuratu zuten, bigarren hiruhilekoko datua bi hamarrenetan gaindituz.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015				
			I	II	III	Urria	Azaroa
Industria							
Industria produkzioaren indizea	-3,3	1,8	0,2	6,1	3,8	4,7	---
Industria giroaren indizea	-21,2	-12,6	-6,0	-2,3	-1,8	-12,9	-3,9
ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	71,7	76,1	78,9	82,4	79,1	---	78,5
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-4,5	-2,2	-1,4	-0,3	-0,1	0,3	0,5
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-23,7	-4,6	1,0	-0,8	-0,9	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	-12,0	2,0	-1,1	0,0	---	---	---
Etxebizitzen salerosketak	-12,4	8,8	17,9	18,0	20,8	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-12,0	-3,2	-0,6	-0,5	-0,7	-0,2	0,1
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	-9,1	5,3	4,0	6,6	7,7	6,1	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	-3,1	4,0	9,7	6,5	7,4	9,9	---
Hoteletako okupazioa	44,3	46,4	32,4	50,8	68,4	54,7	---
Negozio zifren indizea	-3,6	4,2	1,7	5,1	6,0	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	-5,0	1,7	1,0	3,1	3,9	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,0	1,4	2,6	2,9	2,7	2,9	2,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren bilakaera ona IPIaren informazioan ikus daiteke, azken hilekoetan etengabeko gehikuntzak erakutsi dituelako. Are gehiago, datuen interpretazioa desitxuratzen duten enpresa batzuen portaera jakin batzuk kentzeko seriea leuntzen bada, industria ekoizpenaren erritmoa %4,0aren gainera dagoela ondorioztatzen da. Industriaren ondasun talde guztiek urte arteko gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituzten hirugarren hiruhilekoan, baina guztien artean ekipamendurako ondasunen sendotasuna nabarmendu zen, argitaratu diren azken zazpi hilekoetatik bostetan %10etik gorako igoerak lortu dituelako. Bitarteko ondasunetan ere bilakaera gero eta biziagoa da, baina kasu horretan balioak apalagoak dira. Aitzitik, energiaren ekoizpenak hainbat balio negatibo izan ditu azken hilekoetan, gorabehera handiak izaten dituen aldagaia delako. Azkenik, kontsumoko ondasunak erritmoa moteltzen ari dira, aurtengo lehen

zortzi hileko ia guztietan %5,0aren gaineko tasak lortu eta gero. Talde horretan, bizitasun handia hautematen da kontsumo iraunkorreko ondasunetan, kontsumo iragankorrekoetan moteltasuna nagusi den bitartean.

Sektorearen iritziek, industria giroaren indizean bilduta, industriaren bilakaera ona hirugarren hiruhilekoan baieztatzen dute, eta dagoeneko ezagunak diren laugarren hiruhilekoko emaitzak nabarmen okerragoak diren arren, garrantzirik gabeko balio atipiko bat bakarrik izan daiteke, berez gorabehera handiak izaten dituen serie batean. Adierazlea osatzen duten aldagaien artean, ekoizpenaren etorkizuneko joeraren sendotasuna nabarmendu behar da, hala hirugarren hiruhilekoan nola azaroan (argitaratu den azken datua) 15etik gora kokatu zelako, urrian zalantzaz beteriko -9,0 jaso arren, aipatu den datu atipikoa izan daitekeena. Eskari zorroa oraindik txikiegia da inkesta horretan parte hartzen duten enpresentzat eta ez da aurrerapenik hautematen azken hilekoetan. Azkenik, saldu gabe dauden produktu amaituen stocka oso txikia da oraindik, urtearen lehen erdikoa baino zertxobait handiagoa den arren.

Eraikuntzaren bilakaera ez zen horren aldekoa izan eta bi hiruhilekoz gehikuntza positiboak, baina oso apalak, lortu ondoren, berriro murriztu zuen bere balio erantsia hirugarren hiruhilekoan, nahiz eta ehuneko hutsala (%-0,2) izan zen. Etxebizitzen salmenta areagotu da eta aldakuntza tasa oso handiak lortu ditu, baina salmenta gehienak erabilitako bizilekuenak dira, etxebizitza berriak gutxiago saltzen diren bitartean. Beraz, ez da promozio berririk egiteko beharrik. Beste aldetik, eraikuntzaren koiuntura indizeak behera egin zuen berriro, aurreko hiruhilekokoaren antzera.

Industrian bezala, zerbitzuek ere oso bilakaera dinamikoa erakutsi zuten eta balio erantsiaren gehikuntza tasa %3,3ra iritsi zen. Bultzada handiena arlo pribatuari lotuago dauden jardueretan hauteman da. Aitzitik, arlo publikoak parte hartzen duenetan hazkunde tasa txikiagoa da. Izan ere, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldeak %2,2 handitu zuen balio erantsia, aurreko hiruhilekoetakoa baino zertxobait gutxiago. Oso bestelakoa da merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldearen bilakaera, %3,5 hazi zelako, aurreko epealdietako emaitzak zertxobait gaindituz. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %3,7ko tasa jaso zuten.


Zerbitzuen sektore osoaren koiunturako adierazleek baieztatzen dute kontu ekonomikoek hirugarren hiruhilekorako zenbatetsi duten bultzada. Alde batetik, Eustatek osatzen duen zerbitzuen koiuntura indizea %3,9ra iritsi zen, bigarren hiruhilekoko datua hainbat hamarretan gaindituz. Beste aldetik, INEK eskaintzen duen zerbitzuen negozio zifrak %6,0ra igo zuen sektorearen aldakuntza tasa hirugarren hiruhilekoan. Turismoari dagokionez, argitaratu diren datu partzialek seinatzen dute jarduera horren hedapenak jarraitu duela. Hoteletan igarotako

gaualdiak %7,4 hazi ziren hirugarren hiruhilekoan eta %9,9, berriz, urrian. Orobat, hegazkinez bidaiatu diren pertsonen kopurua %7,7 handitu zen hirugarren hiruhilekoan eta %6,1, berriz, urrian.


EAEko ekonomiak bizi duen susperraldi garrantzitsuarekin batera enplegua ere nabarmen sortu da, eta honek barne eskaria are gehiago pizteko balio du. Izan ere, 2015eko hirugarren hiruhilekoan, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %1,8 handitu zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino zertxobait gehiago. Tasa horrek esan nahi du azken urtebetean 15.600 lanpostu garbi baino apur bat gehiago sortu direla.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Sortutako enplegu garbi ia guztia zerbitzuetan lortu zen, urte arteko tasan %2,5 areagotu baitzen sektore horretako enplegua, aurreko datua berdinduz. Lehen arloak ere ekarpen positiboa egin zion lanpostuen sorrerari, %3,4ra iritsi zena eta 400 lanpostutik gorakoa izan zena. Oso bestelakoa izan zen gainontzeko sektoreen bilakaera, zeren eta bai industriak bai eraikuntzak lanpostuak gutxitu baitzituzten urte arteko tasan, nahiz eta jaitiera horiek oso mugatuak izan ziren. Zehatz-mehatz, industriaren beherakada %0,2 izan zen eta 300 lanpostu baino gutxi batzuk gehiagokoa. Eraikuntzak, berriz, %0,5 gutxitu zuen enplegua, hots, 300 lanpostu baino gutxiago.

Enpleguaren hobekuntza lan merkatuarekin zerikusia duten maiztasun handiko beste adierazle batzuetan ere hautematen da, hala nola Gizarte Segurantzako afiliazioan. Izan ere, erregistro administratibo horrek %2,0an kokatu du hirugarren hiruhilekoan afiliatuta zeudenen kopuruaren igoera aurreko urtearekiko. Hazkunde horrek jarraipena izan du laugarren hiruhilekoko hilekoetan, zeren eta azaroan %2,3ra heldu zen gehikuntza tasa.

Halaber, urriko eta azaroko datuek atea irekitzen diote industriaren eta zerbitzuen enplegua berriro hazteari, bi sektore horietako afiliazioa areagotu delako, igoera horiek oraindik oso txikiak diren arren. Zehazkiago adierazita, eraikuntzaren urte arteko aldakuntza tasa azaroan %0,1 izan zen. Hazkunde hori 2007ko irailetik lortu duen lehenengoa da. Beste aldetik, industriak %0,5era bizkortu du Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauzkan lagunen igoera. Azkenik, zerbitzuen gehikuntza tasa egonkor mantendu da %3,0aren zertxobait azpitik dagoen erritmo batean.

Gorantz doazen ekoizpenaren eta enpleguaren konbinaketak %1,1ean utzi du lan faktorearen itxurazko produktibitatearen saldoa. Tasa hori bat dator EAEko ekonomiak 1995etik lortu duen batez besteko irabaziarekin. Ohikoa denez, eraginkortasunaren hobekuntza bereziki altua izan zen industrian, produktibitatea %3,4 areagotu baitzen, bere batez besteko historikoa (%2,0) nabarmen gaudituz. Eraikuntzak eta zerbitzuek, berriz, balio askoz ere apalagoak eskuratu zituzten, hurrenez hurren, %0,3 eta %0,7. Tasa horiek hamarren bat edo bi bakarrik urruntzen dira gaur arte beren batez besteko irabazia izan diren datuetatik.

Barne eta kanpo eskaria

Azken hiruhilekoetan gertatu ohi denez, 2015eko hirugarren hiruhilekoan ere EAEko BPGak barne eskariaren bizitasunari zor dio hazkunde guztia, kanpo saldoak gehikuntza horri bi hamarren kendu zizkion bitartean. Zehatz-mehatz adierazita epealdi horretan barne eskaria %3,1 hazi zen urte arteko tasan, eta 3,2 puntuko ekarpena egin zion hazkundeari. Horrek esan nahi du aldagai horrek lau hamarrenetan hobetu zuela aurreko emaitza. Beste aldetik, esportazio (%1,5) eta inportazio (%1,7) errealek maila apaletan jarraitu zuten. Inportazioen bultzada apur bat biziagoa izan zen eta horrek justifikatzen du gorago aipatu den ekarpen negatibo txiki hura.

Barne eskariaren ikuspegitik, hazkundearen osaera bigarren hiruhilekoko bezalakoa izan zen, hots, bi atal nagusiek urte arteko tasa garrantzitsuak lortu zituzten, baina azken kontsumoak protagonismo handiagoa erakutsi zuen. Hain zuzen ere, agregatu hori %3,3 hazi zen urte arteko

tasana, aurreko emaitza baino lau hamarren gehiago. Beste aldetik, kapital eraketa gordinak %2,2ko tasa lortu zuen, kasu horretan ere aurreko erreferentzia ia puntu erdi batean gainditu zuelarik.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014		2015		
			III	IV	I	II	III
BPG errealak	-1,8	1,4	1,7	2,0	2,2	2,7	3,0
Gastua azken kontsumoan	-1,2	1,5	1,8	2,5	2,3	2,9	3,3
- Familien gastua kontsumoan	-1,1	1,6	2,3	2,7	2,9	3,3	3,3
- Adminis. gastua kontsumoan	-1,8	1,1	0,2	2,0	0,2	1,1	3,2
Kapital eraketa gordinak	-4,9	-0,6	-0,5	0,2	1,3	1,8	2,2
- Ekipamendu ondasunak	-3,4	3,0	4,1	4,3	3,8	5,9	7,4
- Gainontzeko inbertsioak	-5,5	-2,1	-2,4	-1,5	0,3	0,0	-0,1
Barne eskaria	-2,1	1,1	1,3	2,0	2,1	2,7	3,1
Esportazioak	0,9	3,6	3,8	4,8	-1,4	1,8	1,5
Inportazioak	0,3	3,0	3,1	4,6	-1,3	1,8	1,7

Iturria: Eustat.

Azken kontsumoaren barnean, bi osagaien hazkundeak hirugarren hiruhilekoan izan zuen antzekotasuna azpimarratu behar da. Izan ere, familien kontsumoak bigarren hiruhilekoan erakutsi zuen ibilbide sendoari eutsi zion eta berriro %3,3ko tasa bildu zuen. Enplegu sorrera biziak, soldata errearen gorakadak inflazio negatiboko testuinguru batean, igurikapenen eta konfiantzaren hobekuntzak, eta kreditu bat lortzeko erraztasun handiagoak lagundu zuten tasa hori eskuratzen. Kontsumo publikoa, berriz, %3,2ra bizkortu zuen erritmoa, aurreko balioak oso nabarmen gaindituz. Hala ere, ez da aurreikusten bultzada hori denboran luzatzea, administrazio publikoak defizitaren helburua betetzeko helburuarekin daukan konpromisoarengatik.

Kapital eraketa gordinari dagokionez, agregatuaren gehikuntza osoa ekipamendurako ondasunen atalaren bultzada sendoak eragin zuen, eraikuntzan eginiko inbertsioak oraindik geldotasuna erakusten duelako. Zehazkiago adierazita, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa %7,4 hazi zen urte arteko tasan, aurreko datua puntu bat eta erdian gaindituz. Aitzitik, gainontzeko inbertsioak, barnean eraikuntzan eginikoa baitago, %0,1eko jaitsiera arina jaso zuen.

Ekipamenduko inbertsioaren koiunturako datuek baieztatzen dute aldagai horren une ona eta, kasu batzuetan, laugarren hiruhilekora ere hedatzen dute. Izan ere, ekipamenduko ondasunen ekoizpena, zati bat esportaziora eta beste zatia bertoko eskariak asetzera baitoa, %7,7 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, baina %10,7ra iritsi zen urrian, hots, laugarren hiruhilekoko lehen hilabetean eta argitaratu den azkenean. Beste aldetik, Aduana eta Zerga Berezien Sailak argitaratzen duen ondasun horien inportazioa %28,5 handitu zen hirugarren hiruhilekoan, aurreko emaitzak oso nabarmen gaindituz. Azkenik, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa (traktoreak, furgonetak eta kamioiak) %55,0 gehitu zen hirugarren hiruhilekoan. Zenbateko altu horrek adierazten du beharrezkoa dela flotak berritzea, hainbat urtez matrikulazioaren datuak oso apalak izan ondoren.

Kanpoko merkatuekin salerositako ondasun eta zerbitzuak balio apaletan kokatu ziren 2015eko hirugarren hiruhilekoan ere, bigarren hiruhilekoko emaitzetatik oso gutxi desbideratuta. Esportazio errealak %1,5 hazi ziren urte arteko tasan, aurreko datua baino hiru hamarren gutxiago. Inportazioak, berriz, %1,7 areagotu ziren, hamarren bat gutxiago. Erritmoen arteko aldeak ekarpen negatibo txikia eman zion BPGaren gehikuntzari, bi hamarrenekoa. Termino nominaletan, aldakuntza tasak are txikiagoak izan ziren, produktu batzuk merkatu zirelako eta beste batzuen prezioak oso gutxi igo zirelako. Izan ere, esportazio nominalak %0,1 gutxitu ziren eta inportazio nominalak %0,3 baino ez ziren hazi.

Aduanen Sailak atzerrira esportatutako ondasun ezagutarazi duen informazioak iradokitzen du Espainiako merkatuak eta munduko gainontzeko merkatuek antzeko bilakaera izan dutela. Erakunde horren arabera, atzerrian saldutako EAEko produktuak, eurotan baloratuta, %0,2 gutxitu ziren hirugarren hiruhilekoan aurreko urteko epealdi beraren aldean. Jaitsiera hori eta Eustatek kanpoan (Espainian gehi beste herrialdeetan) saldutako ondasunen eta zerbitzuen baliorako kalkulatu duena, aurreko lerroaldean aipatu denez, antzekoak dira. Hala eta guztiz ere, inportazioen atalean badirudi portaera ezberdina hauteman dela merkatu bakoitzean, zeren eta Eustaten zenbatespenak, aipatu denez, kanpoan erositako ondasunen eta zerbitzuen balioa %0,3 hazi zela zehazten baitu, baina atzerritik inportatutako ondasunen balioa %5,7 jaitsi zen. Horrek pentsarazten du ordezkatzeko efektu bat gauzatzen ari dela eta lehen atzerritik inportatutakoaren zati bat orain Estatutik ekartzen dela, garraio kostua txikiagoa delako.

Energiaren atalak garrantzia handia izan du berriro atzerrian saldutako eta erositako ondasunen zenbakietan, hazkundea oso handia izan zelako, baina prezioen beherakadak emaitzak desitxuratu dituelako. Zehazkiago, produktu mineralen esportazioa, bolumenean, %49,5 gehitu zen, baina salmenta horien balioa merkatuan %1,7 jaitsi zen. Gogoratu behar da epealdi horretan petrolioaren salneurria %40 baino zertxobait gehiago merkatu zela eurotan eta %50, berriz, dolarretan, aurreko urteko balioen aldean. Inportazioen kasua antzekoa da, zeren eta

ondasun energetikoen erosketa atzerrian %26,8 areagotu zelako, baina ordaindutako faktura aurreko urtekoa baino %28,8 merkeagoa izan zelako.

Prezioen eragina ez da horren erabakigarria gainontzeko produktuetan eta, horren ondorioz, aldakuntza tasak bolumenean eta eurotan ez dira energia produktuetan bezain ezberdinak. Oro har, energiaren bestelako esportazioak ez ziren aldatu aurreko urteko emaitzaren aldean (%0,0) eurotan neurtzen direnean, eta %0,7 baino ez ziren jaitsi bolumenean kalkulaturik. EAEko enpresek esportatzen dituzten talde nagusien artean, makina eta tresna mekanikoen bilakaera ona azpimarratu behar da, salmentak %8,2 handitu zituztelako. Beste muturrean, metalak eta beren manufakturrek (%-1,4) eta garraio materialak (%-3,8) behera egin zuten.

Hirugarren hiruhilekoz jarraian, EAEko produktuen helburu nagusia herrialde garatuak izan ziren, baina hirugarren hiruhilekoan urte arteko gehikuntza tasa %0,2 baino ez zen izan. Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeek EAEn erositakoaren balioa %1,8 gutxitu zen, eta hiru hiruhileko kateatu dituzte jaitsierekin. Dagoeneko aipatua izanenez, energia produktuen merkatzeak kanpo merkataritzako zenbakiak desitxuratzen ditu. Zehaztu diren aldakuntza tasa horiek, eurotan kalkulaturik baitaude, oso txikiak diren arren, ekonomia eremu bakoitzera esportatutako bolumena oso handia izan zen. Izan ere, ELGEko herrialdeetara esportatutakoaren bolumena %19,1 hazi zen eta munduko gainontzeko herrialdeen multzora bidalitakoa, berriz, %14,5. Hala merkatu batean nola bestean, erregai mineralen salmentak toki garrantzitsua dauka EAEko esportazioen egituran: ELGEn saldutakoaren %14,9 eta gainontzeko herrialdeen %11,7.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2013	2014	2014		2015		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	-1,6	9,9	18,0	-7,0	4,3	-0,2	5.416.495
ELGE	-1,0	9,4	15,6	-3,9	6,6	0,2	4.292.058
Europar Batasuna	-3,6	12,9	19,9	-6,0	6,5	0,9	3.472.661
Frantzia	-7,2	0,8	9,4	-1,6	13,4	2,9	898.284
Alemania	-0,4	7,0	-1,7	-1,9	5,1	-7,1	772.588
Erresuma Batua	-13,8	11,2	18,3	-0,5	5,4	16,3	361.660
Italia	-3,7	9,9	36,2	38,1	19,7	6,7	244.574
AEB	12,4	18,9	45,4	-6,0	2,2	9,4	457.938
ELGETik kanpokoak	-3,8	11,7	26,5	-17,3	-3,6	-1,8	1.124.437

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Hirugarren hiruhilekoan, herrialde anglosaxoiek bultzatu zituzten EAEko produktuen erosketa, Euroguneko herrialdeen gainetik. Hain zuzen ere, Erresuma Batuan saldutakoaren balioa %16,3 handitu zen eta AEBetako, berriz, %9,4. Azken kasu horretan, gorakada bai erregai mineralen eskutik (%17,5), herrialde horretara EAetik esportatzen den guztiaren erdia baino gehiago biltzen baitu, bai makineriaren eskutik (%11,5) etorri zen. Erresuma Batuko kasuan, erosketak ibilgailu automobiletan fokatu ziren, esportazio guztien %29,5 izan zirelako eta hiruhileko horretan %43,9 areagotu zirelako. Makineria eta tresna mekanikoen salmentak ere oso portaera hedakorra (%71,0) erakutsi zuen.

Alemaniarekin dagoen merkataritza harremana, neurri handi batean, ibilgailuen salmentan datza, esportazio guztien %40,6 talde horretakoak direlako. Bada, multzo horren salmenta %16,3 jaitsi zen, hiruhileko batzuetan urte arteko hazkunde tasa biziak eskuratu eta gero. Bigarren talde garrantzitsuena makinak eta tresna mekanikoak dira eta neurri batean konpentsatu zuten bestearen jaitsiera, %29,6 gehiago salduta. Frantzia, esportazio handienak produktu mineralak eta ibilgailuak izaten dira, eta biek gehikuntza nabarmenak eskuratu zituzten, baina kautxuaren eta beste talde txikiago batzuen emaitza txarrekin konpentsatu zuten.

Lehenago ere aipatu denez, garapen bidean dauden herrialdeetara esportatutakoaren balioa zertxobait gutxitu zen (%-1,8) hirugarren hiruhilekoan, eta dagoeneko hiru hiruhileko kateatu ditu jaitsierekin. Eremu horretako herrialde nagusiek portaera ezberdinak erakutsi zituzten. Alde batetik, Brasilen saldutakoa %24,7 hazi zen, herrialde horrek arazo handiak izan arren. Salmenta horien ia bosten bat erregai mineralak izan ziren, nahiz eta herrialde hori ez den izaten sektoreko EAEko enpresen bezeroa. Tresna mekanikoen eta aeronautikako produktuen salmentak sendo areagotu ziren, baina trenbide materialak alderdi negatiboa eskaini zuen. Beste aldetik, beherakada garrantzitsuak gertatu ziren Errusian (%-24,4) eta Txinan (%-32,5). Lehen kasuan, jaitsiera ibilgailuen esportazioak (%-48,9) eta, neurri txikiagoan, makina eta tresna mekanikoenak (%-1,8) eragin zuten. Txinan, EAEko esportazio guztien ia erdia makinak eta tresna mekanikoen atalekoak dira, urte arteko tasan %47,5 gutxitu baitziren, lau beherakada jarraituak pilatuz.

EAEko inportazioek %5,7 murriztu zuten beren balioa, inportatutako produktuen bolumena %20,0 areagotu zen arren, barne eskariaren sendotasunaren ondorioz. EAEko enpresek atzerrian egiten dituzten erosketen zati handi bat produktu mineralak dira eta berauek pairatu duten merkatzek azken emaitza baldintzatzen du. Analisia energiaren bestelako produktuetara mugatzen bada, urte arteko gehikuntza %10,0ra iritsi zen. Hazkunde horretan, parte hartze esanguratsua izan zuten ekipamendurako ondasunek (%45,1), hala makinak eta tresnen atalean (%38,4) nola garraio materialean (%68,0).

Eurotan neurtuta, jaitsiera biziagoa izan zen garapen bidean dauden herrialdeetatik inportatutako ondasunetan, bost hiruhilekoz behera egin baitute. Jaitsiera hori produktu mineralen merkatzeak baldintzatu du, eremu horretan eginiko erosketak guztien %46,2 mota horretakoak direlako. Herrialde garatuetan ere energia produktuen erosketak pisu handia dauka, baina kasu horretan %24,2ra mugatzen da. Europan, erregai mineralen EAEko hornitzaile nagusia Erresuma Batua da, azaleratzen ari diren herrialdeetako beste hornitzaile batzuk ordezkatu baititu eta produktu horren salmentan espezializatu baita. Izan ere, herrialde horretatik inportatzen den guztiaren ia %80 produktu mineralak dira. Halaber, bigarren tokian dago hornitzaileen sailkapenean, Alemaniaren ondoren. Azken honek %32,4 handitu zituen salmentak EAEn, ibilgailuen inportazioak bikoiztuta. Frantziatik inportatutakoak ere bultzada nabarmena (%11,2) izan zuen, makinak eta tresna mekanikoen erosketari esker, nahiz eta galdaketa produktuena murriztu zen. Europatik kanpo, AEBetan erositakoak ere indartsu egin zuen gora, bereziki energia alorrekoak.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2013	2014	2014		2015		
			IV	I	II	III	III
GUZTIRA	0,9	9,9	-0,5	-11,3	6,7	-5,7	4.290.720
ELGE	-0,5	15,0	1,3	-10,3	27,1	-2,3	3.040.415
Europar Batasuna	-2,8	30,3	14,3	-4,7	27,1	-3,0	2.534.019
Frantzia	-1,4	-0,7	-0,1	11,3	14,3	11,2	416.920
Alemania	-6,2	5,9	13,4	2,4	25,3	32,4	552.932
Erresuma Batua	-5,2	180,0	283,9	80,2	80,6	1,9	528.476
Italia	-16,1	2,9	-2,4	4,7	-3,4	0,3	193.281
AEB	40,8	-52,3	-80,1	-23,6	22,9	23,4	97.137
ELGETik kanpokoak	3,3	0,9	-4,7	-13,7	-20,2	-13,1	1.250.305

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Hiruhilekoak utzi zuen merkataritza saldoa 1.126 milioi eurokoa da, beharbada hirugarren hiruhileko batean inoiz lortu den handiena dena. Energia alorreko saldoak izan duen jaitsiera biziak lagundu du emaitza horretan. Izan ere, saldo hori negatiboa ohi da eta erregaien merkatzeari esker 562 milioi eurora mugatu da, azken hamar urtekoan jaso den txikienetako bat delarik. Energiatz bestelako saldoa, berriz, 1.670 milioi eurora iritsi zen, kopuru garrantzitsua baita, baina azken lau urteko txikiena ere bai.

Prezioak

Prezioen alorrean, 2015eko hirugarren hiruhilekoa aurreko epealdien jarraipena izan zen eta oso bilakaera apala erakutsi zuten, baita negatiboa ere adierazle nagusi batzuetan. Hori horrela izanda, eta BPGaren deflatorearekin hasita, adierazi behar da hiruhileko horretan balio negatiboetara (%-0,1) itzuli zela, bigarren hiruhilekoan %0,2an kokatu ondoren. Jaitsiera horren azpian, bereziki, kontsumo pribatuaren deflatoreak erakutsi zuen emaitza (%-0,2) eta kontsumo publikoaren igoera apala, %0,9tik %0,7ra igaro baitzen, nabarmendu behar dira. Aitzitik, kapital eraketa gordinaren deflatoreak, balio negatibotan (%-0,1) kokatu bazen ere, gora egin zuen bigarren hiruhilekoko emaitzaren aldean (%-0,3).

Kontsumoko prezioen indizeak, berriz, bertan behera utzi zuen maiatzean, ekainean eta uztailean bizi zuen suspertzeko joera eta ondorengo hilekoetan oso balio negatiboak jaso zituen, irailean %-0,5era iritsi arte. Hala eta guztiz ere, hala urrian nola, oso bereziki, azaroan beheranzko joera hori irauli zen eta urte arteko aldakuntza tasa %-0,1era iritsi zen. Petrolioaren salneurriak nazioarteko merkatuetan izan zuen beherakada dago indize orokorraren jaitsiera horretan, nahiz eta beste produktu batzuen igoera txikiak jaitsiera hori konpentsatzen ari diren. Hain zuzen ere, KPIaren urte arteko beherakadak gero eta gehiago fokatzen dira bi taldetan: garraioan eta etxebizitzan.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2013	2014	2015			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazio osoa (%100)	1,6	0,2	-0,1	-0,2	-0,1	-0,1
Azpiko inflazioa (%81,8)	1,6	0,3	0,5	0,8	1,0	0,8
-Elikagai landuak (%14,1)	3,1	0,0	1,0	1,5	1,8	0,2
-Industria ondasunak (%26,2)	0,5	0,1	0,2	0,2	0,7	0,2
- Zerbitzuak (%41,5)	1,8	0,6	0,6	1,0	1,0	0,4
Hondar inflazioa (%18,2)	1,4	-0,6	-3,1	-4,6	-4,9	-0,9
- Landu gabe elikagaiak (%7,0)	3,7	-1,2	1,9	3,0	2,2	0,2
- Energia (%11,2)	0,0	-0,1	-6,2	-9,1	-9,3	-1,1

Iturria: INE.

Eskari globalaren nolabaiteko ahultasunak eta petrolio gordinaren eskaintzak izan duen gehikuntza biziak lehengai horren salneurria berriro merkatzea ahalbidetu zuten. Zehatz-mehatz adierazita, Brent motako petrolioaren upelak 50 dolarren azpitik jarraitu zuen. Are gehiago, abenduaren lehen egunetan 40 dolarren azpitik kokatzera iritsi zen, balio horiek azken urteetako txikienak direlarik.

Kontuan hartuta inflazioaren oraingo jaitziera oso lotuta dagoela petrolio gordinaren prezioak nazioarteko merkatuetan izan duen merkatzeari, azpiko inflazioak, osagai hori barnean hartzen ez baitu, ez zuen haren eragina pairatu. Areago, urrian eta azaroan 2013ko irailetik inoiz jaso duen tasarik handiena (%1,0 bi hilekoetan) eskuratu zituen. Hazkunde horrek segida eduki behar du datozen hilekoetan, barne eskariaren bultzadarengatik eta inportazioek, euroaren balio galeraren ondorioz, izan duten garestitzearengatik.

Azpiko inflazioak oso gehikuntza apalak aurkeztu zituen 2015eko lehen hilekoetan, baina maiatzetik aurrera gorantz egin zuen, energiaren bestelako industria ondasunen prezioek eta landutako elikagaien eragin zuten gorakadak baldintzatuta. Hain zuzen ere, bi talde horiek azken hilekoetako baliorik gorenak jaso zituzten, azaroan, hurrenez hurren, %0,7an eta %1,8an. Aldi berean, zerbitzuen salneurrien urte arteko tasak bere horretan jarraitu zuen, %1,0ko balioan.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIKIDURIA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2014		2015			Azaroa
			IV	I	II	III		
Indize orokorra	1,6	0,2	-0,2	-0,7	-0,1	-0,2	-0,1	
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,9	-0,6	0,2	0,0	1,4	2,1	2,0	
Edari alkoholduak eta tabakoa	6,0	1,0	-0,1	0,8	1,1	0,9	0,9	
Jantziak eta oinetakoak	0,1	0,2	0,3	0,1	0,5	0,5	0,4	
Etxebizitza	1,1	2,0	1,1	-1,3	-1,3	-1,5	-1,9	
Etxeko hornidura	2,0	-0,4	-0,2	0,2	0,1	-0,4	0,0	
Medikuntza	7,5	4,3	0,0	-0,2	-0,3	-0,1	0,9	
Garraioa	0,3	-0,5	-2,1	-4,9	-2,6	-4,9	-4,3	
Komunikazioak	-4,3	-6,1	-5,7	-4,6	-2,3	-0,5	0,6	
Aisia eta kultura	1,6	-1,2	-1,3	-0,3	-0,7	0,2	0,4	
Irakaskuntza	3,0	2,7	2,8	2,6	2,7	2,6	0,7	
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,1	0,7	0,4	0,3	0,1	0,4	0,5	
Besteak	2,1	1,2	1,4	1,6	1,6	1,6	1,8	

Iturria: INE.

Lehenago ere aipatu denez, petrolioaren salmentaren bilakaera nabarmenago pairatu duten taldeek urte arteko aldakuntza tasa negatiboenak erakutsi zituzten. Esate baterako, garraioaren jaitsiera (%-4,3) oso esanguratsua izan zen, erregaien merkatzeak baldintzatuta. Beste aldetik, etxebizitzaren taldea zertxobait suspertu zen urrian, baina oraindik datu negatiboa (%-1,9) eskuratu zuen, argindarrak eta gasak ezin dutelako tasa positiboak lortu. Gainontzeko talde guztiak dagoeneko aldakuntza tasa positibotan kokatu dira eta haietatik bi oso hurbil daude Europako Banku Zentralak ezarri zuen erreferentziatik. Igoera handiena (%2,0) elikagaiek eta alkoholik gabeko edariek jaso zuten, baina besteak izeneko taldeak ere urte arteko tasa altua (%1,8) eskuratu zuen.

Industria prezioen indizeari dagokionez, adierazle horrek oso tasa baxuak jasotzen jarraitu zuen, KPIaren kasuan gertatu den bezala, energiaren salneurri merkeek baldintzatuta. Indize orokorraren beherakadaren oinarrian, bereziki, bitarteko ondasunek ezagutu duten beheranzko joera bizia eta energia alorraren jaitsiera garrantzitsuak daude. Beste aldetik, kontsumoko ondasunek tasa negatibotan murgilduta jarraitu zuten, baina zertxobait igo zuten urte arteko tasa urrian.

Azkenik, hitzarmen kolektiboen analisian, azpimarratu behar da, berriro ere, talde negoziazioaren garapena oso motela dela eta, horren ondorioz, hirugarren hiruhilekoa amaitu zenerako lan hitzarmena indarrean zeukaten landunen kopurua oso txikia zela. Hitzarmenetan adostutako soldata gehikuntzari dagokionez, apala (%0,6) den arren, inflazioaren igoerarena baino handiagoa da eta erosteko ahalmenaren zati txiki bat berreskuratzeko balio izan du. Deigarria da urtean zehar sinatutako hitzarmenetako gehikuntza aurreko urteetan adostutakoa baino altuagoa izatea, aurreko urteetan gertatu zenaren kontra. Azkenik, ez dago alderik sektore mailan eta enpresetan adostu dituzten igoeren artean.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	3,6	2,7	1,3	0,7	0,6
- Urtean zehar sinatutakoak	3,4	2,0	1,1	0,5	0,9
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	3,8	2,7	1,3	0,8	0,6
- Enpresako hitzarmenak	3,1	2,6	1,2	0,6	0,6

(*) 2015ko urriera arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Aurreikuspenak

Ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten erakundeek azken hilekoetan bere horretan utzi dituzte aurreikuspenak edo beheranzko zuzenketa txikiak egin dituzte munduko ekonomiarentzat. Esate baterako, Consensus Forecastek, abenduan, %2,6an utzi du 2015eko hazkunde tasa eta beherantz berrikusi du 2016koa, %2,8an utzi arte. ELGEk, berriz, azaroko azken txostenean, beherantz eraman ditu munduko BPGaren kalkuluak eta %2,9ko hazkundera aurreikusi du 2015erako eta %3,3koa, berriz, 2016rako.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Munduko ekonomia (*)	2,8	2,6	2,8	2,6	1,9	2,4
AEB	2,4	2,5	2,5	1,6	0,2	1,7
Kanada	2,5	1,2	1,9	1,9	1,1	1,9
Japonia	-0,1	0,6	1,2	2,7	0,8	0,7
Eurogunea	0,9	1,5	1,7	0,4	0,1	1,0
Europar Batasuna	1,4	1,8	1,9	0,6	0,1	1,1
Alemania	1,6	1,7	1,8	0,9	0,3	1,3
Espainia	1,4	3,2	2,7	-0,2	-0,5	0,8
Frantzia	0,2	1,1	1,4	0,5	0,1	0,9
Herbehereak	1,0	2,0	1,8	1,0	0,7	1,3
Italia	-0,4	0,8	1,3	0,2	0,1	0,8
Erresuma Batua	2,9	2,4	2,3	1,5	0,1	1,1
Asia eta Ozeano Barea	4,8	4,6	4,6	2,7	1,7	2,0
Ekialdeko Europa	1,8	-0,2	1,7	7,0	8,4	5,8
Amerika Latina	1,5	0,1	0,7	7,0	7,6	7,0

(*) Venezuela kanpo

Iturria: Consensus Forecast (2015eko abendua).

Hazkunde globalaren moteltze horren arrazoia azaleratzen ari diren ekonomia batzuen bizitasun apalagoa da, bereziki Txinan gertatzen ari dena, inbertsionen kontsumora doan trantsizio prozesu batean murgilduta dagoelako. Munduko merkataritzaren narriadurak alerta piztu du garatzen ari diren herrialdeen moteltzearen garrantziaz eta, aldi berean, herrialde garatuaren susperraldi ekonomikoaren sendotasuna probatzeko balio du. Hala eta guztiz ere, etorkizunari buruz dauden igurikimenak baikorrak dira eta Txinako agintariek ezarri dituzten pizgarriek

herrialde hartako egoera bideratuko dutela aurreikusten da. Neurri horien artean, interes tasen beste jaitziera bat eta azpiegituretako beste inbertsio egitasmo bat azpimarratu behar dira.

AEBetan, ekonomia %2,5aren inguruan haziko da, hala 2015ean nola 2016an. Iparramerikako ekonomia horrek hazkunde biziari eutsiko dio, baina soldaten igoera txikiko testuingurua kontuan hartuta, arrisku garrantzitsuak agertu dira garapen sendo horren joeran. Gaur egun ekonomia estatubatuarrak erakusten duen sendotasuna ikusita, interes tasak berehala igoko direla aurreikusten da. Igoera hori lehenengoa izango litzateke azken bederatzi urte eta erdiko epealdian, eta dolarrari balioa emango zion, atzerriko inbertitzaileak erakarriz. Petrolioaren salneurri apalak AEBetako ekonomia laguntzen jarraituko du, ekonomia eragile guztiei aurrezteko aukera ematen dielako eta bai kontsumoa bai inbertsioa areagotzen lagunduko duelako.

Eurogunerako hazkunde aurreikuspenak zertxobait hobetu dira eta ekonomia susperraldiaren prozesuak jarraitu duela baieztatzen dute, nahiz eta susperraldi horren erritmoa ez den oso bizia. Barne eskaria Eurogunean parte hartzen duten herrialde gehienetan indartuko dela aurreikusten da, familien diru sarrera erabilgarriak handituko direlako, inflazioa apala izango delako, enpresen marjinak haziko direlako eta finantzaziorako baldintzak onak izango direlako. Erakunde guztiak bat datoz oraingo hazkundera bultzatzen ari diren faktoreak iragankorrak direla esateko orduan. Izan ere, petrolioaren prezio merkeak, euroaren ahultasuna eta Europako Banku Zentralaren moneta politika egokitzaila etorkizuneko eszenategi makroekonomikoetan deskontatu diren faktoreak dira. Consensus Forecasts-ek Eurogunearen ekonomia hazkunderaz argitaratu dituen azken aurreikuspenek %1,5eko gehikuntza zehazten dute 2015erako eta %1,7, berriz, 2016rako.

Espanian, barne produktu gordinaren 2015eko hazkunde tasa, urteko batez bestean, %3,2aren inguruan kokatuko dela aurreikusten da. Hurrengo urterako, berriz, espero den aldakuntza tasa hamarren batzuk motelduko da eta %2,7an kokatuko da. Barne eskariak hazkundera bultzatuko du, bere merkatuko agregatuen sendotasunari esker. Hain zuzen ere, familien eta enpresarien konfiantza areagotu izanak ekonomiaren susperraldia lagunduko du. Datozen urteetako politika fiskala hedakor samarra izango da eta horrek ere nazio eskariaren garapenari ekarpena emango dio. Arlo publikoak, berriz, murrizketekin jarraituko du, zor publikoa eta defizita murrizte aldera. Kanpo eskariari dagokionez, aurreikuspenek seinalatzen dute kanpo arloak ekarpen negatiboa handituko duela. Alde batetik, Europako ekonomiaren susperraldiak esportazioen bizitasuna bizkortuko du, baina, beste aldetik, barne eskariaren gorakadak inportazioen garapena eragingo du.

Lan merkatuari buruzko aurreikuspenak aurreko txostenetan aurkeztu zirenak baino baikorragoak dira. Esate baterako, Funcasen panelak uste du enplegua %3,0 haziko dela 2015ean eta %2,5, berriz, 2016an. Orobat, langabezia tasa %22,2an kokatuko da 2015eko batez bestekoan eta %20,4an hurrengo urtean.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2015eko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2015	2016				2016
	IV		I	II	III	IV	
BPG	3,2	3,1	2,9	2,4	2,2	2,0	2,4
Kontsumo pribatua	3,5	3,5	3,4	3,0	2,6	2,2	2,8
Kontsumo publikoa	1,2	0,9	0,8	0,9	1,1	1,1	1,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,2	6,2	6,0	5,3	5,2	5,1	5,4
- Inbertsioa ekipamenduan	9,6	9,5	9,6	7,5	6,0	5,1	7,0
- Inbertsioa landutako aktibotan	6,5	8,7	3,0	2,7	3,4	4,5	3,4
- Inbertsioa eraikuntzan	4,8	5,0	4,3	4,1	4,9	5,2	4,6
Barne eskaria	3,8	3,5	3,5	3,0	2,7	2,5	2,9
Esportazioak	5,8	5,7	5,4	5,4	5,4	5,6	5,4
Inportazioak	7,9	7,3	7,7	7,5	7,1	7,5	7,4

Iturria: CEPREDE.

EAEri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak urrian aurkeztutako EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa bere horretan utzi du 2015 eta 2016 urteetarako. Zehazkiago adierazita, 2015erako espero den aldakuntza tasak %2,7an jarraitzen du eta 2016rako %2,5aren ingurukoa izango dela pentsatzen da. Moteltze arin horren arrazoia azken hiruhilekoetan ekonomiaren hazkundera bultzatu duten faktore exogenoen eragina apalduko dela aurreikustea da. Halaber, aurreikuspen horien arriskuak nazioarteko ingurunea okertzean, AEBetako interes tasen igoerak ekarriko dituen ondorioetan eta dolarraren balio irabazian fokatzen dira.

Barne eskariak bultzatuko du EAEko ekonomia kontuan hartu den epealdi osoan zehar eta BPGari egingo dion ekarpena 2,6 puntura iritsiko da 2015ean eta 2,2 puntura, berriz, 2016an. Familien errentaren susperraldiak, enplegu garbien sorrerari eta soldaten igoera txikiari esker, inflazio apalak, interes tasa txikiak eta kredituak lortzeko malgutasun handiagoak kontsumo pribatua areagotzen lagunduko dute. Enpresen inbertsioak ere bizitasuna erakutsiko du oraingo

taula makroekonomiko honetan kontuan hartu den epealdian. Munduko ekonomiaren hazkundeak, barne eskariaren bultzadak eta kredituak lortzeko erraztasunek agregatu horren goera neurritsua ahalbidetuko dute, ekipamendurako ondasunetan gehiago hautemango dena.

Kanpo eskariak ekarpen positiboa egingo dio EAEko BPGaren hazkundeari aurreikuspeneko denboraldi osoan, baina ekarpen hori txikia izango da. Munduko ekonomiaren hazkundeak EAEko esportazioak biziki indartuko ditu, baina barne eskariaren sendotasunak kanpoan eginiko erosketak handituko ditu.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2015eko abendua)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015		2016				2016
	IV	2015	I	II	III	IV	
BPG	2,9	2,7	2,7	2,4	2,3	2,3	2,5
Azken kontsumoa	2,4	2,5	2,1	2,0	1,9	1,8	2,0
Kontsumo pribatua	2,7	2,9	2,5	2,3	2,2	1,9	2,2
Kontsumo publikoa	1,1	0,9	0,9	0,9	0,8	0,9	0,9
Kapital eraketa gordina	3,2	2,2	2,9	2,7	2,5	2,5	2,6
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,6	2,4	2,2	2,1	2,0	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena	0,3	0,1	0,3	0,3	0,3	0,4	0,3
Lehen arloa	5,1	-4,9	4,8	8,7	-5,5	5,6	3,4
Industria eta energia	3,6	2,6	3,2	2,5	2,4	2,0	2,5
Eraikuntza	1,0	0,7	0,9	0,9	0,8	0,9	0,9
Zerbitzuak	3,0	3,0	2,8	2,5	2,5	2,6	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	2,7	2,8	2,4	2,3	2,4	2,5
Ekoiizkinen gaineko zergak	2,5	2,7	2,2	2,0	1,9	1,7	2,0
BPGaren deflatorea	0,9	0,4	1,0	1,2	1,4	1,5	1,3
Enplegua	2,1	1,8	1,9	1,7	1,6	1,6	1,7
Langabezia tasa	14,3	15,2	14,1	13,8	13,1	12,8	13,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzari dagokionez, oraingo aurreikuspenaren arabera jarduera adar guztiek ekarpen positiboa egingo diote EAEko balio erantsi gordinari datozen hiruhilekoetan. Urteko batez bestekoan, industriaren aldakuntza tasa %2,5aren inguruan kokatuko da 2015 eta 2016 urteetan. Eraikuntzak hazkunde txikiak, baina positiboak, eskuratuko ditu. Beste aldetik,

zerbitzuek hazkunde biziko irudia eskainiko du eta, industriarekin batera, bizitasun handieneko sektorea izango da.

Lan merkatuaren alorreko aldagaien berrikusketak %1,8an kokatu du 2015ean lortuko den enpleguaren gehikuntza tasa. Enpleguaren sorrerak aurreikuspen epealdi osora luzatuko da. Beste aldetik, langabezia tasa %15,2an kokatuko da 2015ean eta beherantz egingo du berriro 2016an ere, urteko batez bestekoa %13,4 izan arte.